

Alderdi Komunista izan zen zarpaketarik haundiena jasan beharra izan zuena. Marxismo-Leninismoaren argiarekin, Indotxinako Alderdi Komunistak, populuaren eta nazioearen aitzinean zuen erresposabilitatea ikusirik, eta burua galdu gabe, munduko inperialismoaren krisiak sortutako egoera izigarriari so egin zion. Okasio honetaz baliaturik, Bietnamgo nazioea libratzeko iraultza aitzin-arazi zuten, garaipenera heldu arte.

Errepresioaren aurka burrukatzen zen batean, indar iraultzaile guztiak batzeari ekitzen zion, 1940-garren Japoiko tropen sartzeak beldurtu gabe, nahiz gure herriarentzako bi zapalkuntza sortu zitezkeela ikus. Egoera honek, bere ondoan populu guztia batzeko indar gehiago eman zion, Frantziako inperialismoa eta Japoiko faxismoa botatzea zuelarik helburu. Oihu hau egin zuen ! Frantsesak gudukatu ! Japoitarrak bota !

Masen anti-inperialista zen abertzaletasunean oinarriturik, lehenago fronte demokratikoan eta nazioearen batasunean egin zuen bezala, partidoa, masen kontzientzi iraultzailea haunditzen saiatu zen, eta herriaren sail

guztiak, inperialismoaren aurkako nazioko fronte batetan biltzen. Hau Bietnameko independentziarako Liga izan zen, Biet Minh Frontea deritzana.

Sobieten Batsunaren aurkako Hitleren gerlagatik, gure burrukak beste era bat hartu zuten, eta faxismoaren kontrako mundu guztiko fronte demokratikoa sortu zen. Honek masen iraultzailetasuna haunditu zuen, Bietnameko iraultzaren garaipena segurtatuz.

Garaipen honen segurtapenez, eta honen indarrak ondo ezagutzen zituelarik, Alderdia ez zen ideologia eta politika mailan bakarrik preparatzen ari, kultura eta beste mailetan ere bai. Independentzia lortu ondorengo kultura jasotzeko ondo ezagunak diren tesisak, 1943-an argitaratu zituen. Hauek hiru alde zituzten : nazionala, zientifikoa eta herrikoa.

*Jairraituko du.*

UHARTE-k euskaratua.

(1). « Le Vietnamien et l'enseignement supérieur en vietnamien dans la R.D.V.A. » Hanoï 1968. MGUYEN KHQNH TOAN.

## ESPAINIARI

*Espainiari guk  
galdetzen diogu,  
zertako nahi dituen  
hildako  
behar-espainolak*

*Euskaldunak ere  
lurpean ez dute naziorik.*

*Ea zer ari den  
gazteok hiltzen,  
bizirik ez zirenak  
espainol izan daitezen  
hilda.*

*Espainiari guk  
horixe esaten diogu :  
heriotza espainola da.*

Joxe Azurmendi.